

Giro ederra Guadalupeko Amaren jaietan

Herritar ugari gerturatu da Uzturre plazara jaietaz gozatzera

Urtero moduan, Extremadura etxeak bere zaindariaren, Guadalupeko Amaren eguna, irailaren 8a, ospatzeko ekitaldi ezberdinak antolatu zituen asteburu honetan.

Era honetara, Uzturre plaza Extremadurako Autonomia erkidegoan jaio eta herrian bizi diren lasarteotarren bilgune izan da egunotan.

Hasiera eta umorea

Festa giroa bandera goratzearekin eta Extremadurako Komunitate Autonomoaren himnoaren kantatzearekin hasi zen ostiralean.

Bertan, Extremadura etxe-ko bazkide eta lagunkideez gain, Iñaki Mugika alkateordea eta Fernando Escoriaza zinegotzia ikusi ahal izan genituen.

Ondoren, herri-afarian, bazkideek eta herritarrek Extremadurako kaldereta goxoa dastatzeko aukera izan zuten.

Afal ostean, *Franquete* eta *Felisaren* umore eta koplak saioari esker, barre eta algaren ueña izan zen Uzturre plazan.

Egun handia

Ospakizunerako egun handia larunbatekoa izan zen. Haur zein helduentzako ekintzez

betetako egitarauak, giro ederrean, herritar ugari bildu zituen plazan.

Goizean, haurrek ongi pasatzeko jarduerak prestatu zituzten, marrazki eta pintura lehiaketa eta jolasak. Marrazki lehiaketaren gaia, Extremadura izan zen eta ostean umeak ederki ibili ziren Uzturre plazan zaku karreretan edo aulki jolasean.

Arratsaldean, berri, helduen txanda zen. 18 urteko gorakoentzat mus txapelketa, Ermuako *Flor de Tomillo* Extremadurako Kultur taldearen emanaldia, emakumeen bola-joko txapelketa eta lehenengoz, gizonentzako toka txapelketa.

Gau partean, herriko agintari, bazkide eta lagunentzako afaria eskaini zen eta afalondan elkarteko lehendakariak oroigarriko plakak banatu zizkien aurten Extremadura etxean 25 urte bete dituzten bazkideei.

Ibai Berriak taldearen laguntzaz dantza lehiaketa egon zen ostean. Eta asko izan ziren goizeko hirurak arte dantzan egon zirenak. Orduan, indarrak eskuratzeko, bertan zeuden guztiak migak banatu zituen Extremadura etxeak.



Heldu eta haurrek primeran gozatu dute Extremadura Etxeko jaietaz. Goian, gizonen toka lehiaketa; behean, haur jolasak.

Folklore nagusi

Folkloreaz gozatzeko eguna izan zen igandekoa.

Eguerdian, Arantzazuko Ama Birjinaren elizan, Errenteriako *Ecos de Extremadura* Monfragüe Extremadura etxe-ko taldearen koruek lagundurik meza girotua ospatu zen Guadalupeko Amaren ohorez.

Bazkaldu baino lehen, herriko Semblante Andaluz elkarteko *Zambra* taldearen emanaldia ikusi ahal izan zen Uzturre plazan.

Herri bazkariaren ostean, tute txapelketa jokatu zen eta *Raices y Brotes* Nafarroako Extremadura etxe-ko taldeak eskainitako saioak dantzan jarri zituen bertan ikusle gehienak.



Festei amaiera eman baino lehen, joko eta lehiaketetako irabazleei sariak banatu zizkieten eta pozik joan ziren etxera oroigarri bezetako poltsarekin.

Iluntzean, Extremadura Etxeak bandera jaitziera eginaz, hurrengo urtera arte agur egin zion Guadalupeko Amaren festei. •



Lasarte-Oriako
Udal Euskaltegiaren
egoitzaren
inaugurazioa
ostiralean /4

KIROLA/ 3
2009-2010
ikasturterako
heldu eta
gaztetxoentzat
kirol eskaintza
aurkeztu da



Itsasoari begira
erakusketako
egilearekin, Goizane
Mendizabalekin
solasean /5



Apuntatu!
Anima zaitetz!!

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA+TUTORETZA+HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEKO PLANGINTZA

ESKAERA BEREZIAK AZTERTUKO DIRA

EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEKO MAILA GUZTIAK

AUTO-IKASKUNTZA (OHINTZAMENA TALDEAN)

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

ERABILERA BULTZATZEKO EKINTZAK

MATRIKULALDIA
IRAILAREN 1ETIK 18RA



I AM TÚ ERES ... هي
TÚ ERES ... هي
GU GAR VOUS ÊTES ELES SÃO
GU GAR VOUS ÊTES ELES SÃO
GU GAR VOUS ÊTES ELES SÃO

Bekokale bidea 1
Tel.: 943 361621
Posta e: euskaltegia@lasarte-oria.org
Web orria: http://www.lasarte-oria.org/euskaltegi

Q kalitate ikurra jaso du Goiegik

■ Maria Luisa Tapiak irekitako taberna bere biloben esku da orain ■ 1986an berritu zuten fundatzailearen alabek ■ Egunero menua, karta eta ospakizun otorduak eskaintzen dituzte

Goiegi jatetxeak Q kalitate ziurtagiria lortu du. Historia luzea duen tokia da. Maria Luisa Tapiak amonak irekitako tabernaren arrakasta urte askotan egindako lan onaren ondorio da, orain jatetxearen ardura duten Juan Luis Eizmendi, Aitziber Martiarena eta Ainhoa Ormazabalaren estez. Azken urteotan egunero ehun bat laguni ematen diote bazkaltzen. Juan Luis eta Aitziberrek eman digute izendapenaren berri.

Jon ALTUNA

"Lasarten Goiegi etxea, 1610. urtean eraikia, eta J. Arsuaga eta M.L. Tapiak Jaun andreen seme alabek 1986 urtean berreraikia" irakurri daiteke jatetxearen sarreran. Duela gutxi ondoan Q kalitate ziurtagiria jarri diote. Taberna zabaldu zuen Maria Luisa Tapiaren bilobek ondo banatuta dituzte lanak gaur egun. Juan Luis Eizmendi da sukalde burua, Ainhoa Ormazabal *maitre* edo zerbitzarien burua eta Aitziber Martiarena arduratzen da gestio, administrazio eta ekonomia kontuetaz. Hirurek dute Arsuaga abizena baina bigarren tokian. Ama zuten Goiegikoa.

Zer ekarri du Q kalitate ikurra Goiegira?

Jendeari aurrena burura etortzen zaiona horrek halako ospe bat emango ote digun da, eta nik uste hori azkenengo motiboa dela. Beste zerbaite da: lan sistema bat martxan jarria dugula adierazten du. Gure estiloa, guk janak egiteko eta zerbitzeko dugun era, gehiago edo gutxiago gustatuko zaio jendeari, lehen bezalaxe, baina lanerako metodologia bat ezarrita daukagu, kalitate, segurtasun... aldetik eta horren barruan sistema bat dugu gaizki egiten ditugun gauzak detektatu eta hobetzen saiatzeko.

Zer egin behar izan duzue? Asko kostatu al da izendapena?

Egia esan, eurek daukate oso erraza: "Dauden arau guztiak bete behar dituzue" esaten dizue, eta zuk joan beharko duzu norbaitengana zein norma bete behar diren jakiteko. Sanitatekoak nahiko sarri etortzen dira jatetxeetara, baina industriakoek ezusteko handia eman ziguten. Ezagutza falta handia geneukan segurtasun elektriko aldetik eta horrela da nik uste oro har. Horiek bete eta egiten ditugun lan guztiak protokolizatu ditugu.

Ulerzeko adibide erraz bat. Errezeta guztiak idatziz jarrita egon behar dute ordezko sukaldari bat etortzen baldin bada

hemen nola egiten den jakin dezan. Eta hori bezala, mahai batean mantelak edo zapiak nola jarri behar diren, gauzak zein maiztasunekin garbitu behar diren,... Lan gogorrena dena dokumentatzea izan da.

Azterketa gogorra izan da alare erraz gainditu duzue?

Guk egia esan ilusio handiarekin hartu genuen eta oso sendo geunden, gauzak ondo eginak geneuzkela bagenekien. Hala ere, egun osoa pasa genuen. Auditorea goizean etorri eta arratsaldeko 4etan joan zen. Ondo pasa nuen.

Nork ematen du eta zenbat denborarako?

ICTE turismoaren inguruko Europa mailako erakundeak ematen du eta urtero berritu behar da. Hauek noski, beti aurkitzen dute akatsen bat, bestela badiudi ez direla etorri eta okerak zuzendu egin behar...

Bezeroek ba al dakite? Jakinarazi al diezue?

Atean jarri dugu bidali diguten ikurra, baina 2009ko marketing kanpainako aurrekontua agortua dugunez,... (barreka).

Nongoak eta nolakoak dira nagusiki zuen bezeroak? Norekin lana egiten duzue?

Eguneko menua jatera datorren bezero kopuru handia daukagu, gehienak kanpokoak, hemen lanean dihardutenak,... hori betidanik izan dugu. Beste arloa, karta, ospakizunak, famili bazkariak, ezkontzak,... dira. Hor gehienak bertakoak edo ingurukoak dira.

Ehun lagun inguruk bazkaltzen du egunero. Gaueko lana asko jaitsi da. Ostiral eta larunbatetan zerbaite egiten dugu,...

Zenbati emateko prest zaudete?

Okasio berezietan iritsi gara 200 laguni ematera baina normalean 120-140.

“ Sukaldean ezagutza baino askoz inportanteagoa da gogoia, mimoa eta interesa jartzea



Aitziber Martiarena eta Juan Luis Eizmendi Goiegiko atean. Qa dute gainean.

“ Sistema bat martxan jarri dugu gaizki egiten ditugun gauzak detektatu eta hobetzen saiatzeko

Lasarte-Orian badira hainbat jatetxe, baina zuen izan zarete Qa lortzen lehenak, ezta?

Nik dakidala bai.

Hainbeste jatetxe eta hain onak izanda ohore handia izango da zuentzat, ala?

(Barreka). Lagunak dauzkagu beste jatetxetan eta ez dut uste inbidiarik dagoenik. Ez zuten jakingo Ostalaritza elkarteak hau martxan jartzen laguntzen zuenik. Gogoia eduki behar duzu, ordu batzuk sartu behar dira. Lana da.

Zer nolako jatetxea da Goiegi? Noiztik dago zabalik?

Goiegi berez sagardotegia zen garai batean, asko ziren Lasarte-Orian, amak ezagutu omen zuen dolarea, baina modaz kanpo geratu zirenean, industria jarri zenean, kanpotik zetozenak lo egiteko moldatu eta dolarea kendu egin zen. Gero

amonak orain dela 50-60 urte taberna zabaldu zuen. Uztea erabaki zuenean gutxiago edo gehiago laguntzen zioten bost alabek jarraitu nahi zutelera erabaki eta 1986an orain dagoen bezala zabaldu zen berritua. Gaur egun, Qaren kontuarekin hirugarren belaunaldia gaude. (Juan Luis, Aitziber eta Ainhoa).

Q-akin, ez al zarete goiegi iritsi?

(Barreka eta erdi txantxetan) Ez, oraindik gorago iritsi behar dugun...

Michelin izarra eskatu beharko duzue, orduan?

Ez dugu planteatu ere egin, baina oso ezberdinak dira. Q, ziurtagiri oso objektiboa da, baldintza batzuk bete behar dituzu, norbait etorri eta esango dizu honetan betetzen duzu eta honetan ez, honengatik eta honengatik. Prest bazaude lortu dezakezu.

Michelin izarra lortzeko segur-aski guk bete behar ditugun baldintzak bete behar dira, ez dut uste kalitate sistema bat izan gabe Michelin izarra lortzea posible denik, baina hortik

haratago, gai izango bagina ere, presio ikaragarria da. Pentsa Xuberoako Hilario Arbelaitz-ek 50 urterekin, urte askotako esperientziarekin, bere karrerako momenturik onentsuenean dagoenean, izar bat galtzea,... kolpe handia izan behar du.

Behin Qa lortuta igo egingo al dira prezioak Goiegira? (txantxariek jarraituz)

Ez, esango nuke merketu egingo direla.

Krisi garaia delako?

Neurri batean bai. Joan den urteko hona ez dugu xentimorik ere igo. Eta datorren urtean ikusiko dugu. Gauzak ez daude igoeratarako. Gerrikoa estutu beharko da eta gastua nondik murriztu daitekeen ikusi.

Benetan kalitate ona al du euskal sukaldaritzak?

Nik uste denetik dagoela, baina oro har bai. Sukaldari batek behin esan zidan, beste edozein arlotan bezala, ezagutza inportantea dela sukaldean, baina askoz ere inportanteagoa dela egiten duzunean gogoia, mimoa eta interesa jartzea. Nire ustez Euskal Herrian sukaldaritzan oso jende saiatua dago.

Kalitatea eman al daiteke eguneroko menuan?

Zaila da. Ez dut uste daukagun negozioa, daukagun estruktura-rekin eguneko menuarekin mantendu daitekeenik; daukan prezioan eta guk ematen dugun kalitatearekin. Aitzakia da, bezeroen sarrera itearek egoteko, eta badauzka bere bentajak ere, jeneroari errotazioa ematen diozu, bestela gauza batzuk galduta egingo liriateke, baina zaila da.

Zeren araberakoa da Goiegiren arrakasta edo zeri esker dauka da Goiegik izen on hori?

Urte askotan lan ona egin izanaren ondorioz. Amonak bazituen bere bezero finakoak, baita gure amek ere. Bada jendea, duela 20 urtetik hona, bere urtebetetuek eguneko bazkaria hemen egiten duena. Nik uste gure arrakasta hor dagoela.

Oro har osasuntsu jaten al da Euskal Herrian?

Nik uste badakigula ondo jaten. Ez dakit galtzen ari den ala ez den, baina etxeetan ohitura onak dira, jenero ona daukagu... Agian hurrengo belaunaldia ez du hain ondo jango, baina uste dut orain arte oso ondo jan dela. •

Guztientzako kirol eskaintza

■ Heldu, zein haurrentzako jarduera ugari Udal Kiroldegian

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako kirol zerbitzuak 2009-2010 ikasturterako Udal kirol eskaintza aurkeztu du. Heldu zein 16 urte beherako gaztetxoentzako jarduera aukera zabala dago urriaren 1an hasi eta ekainera arte iraungo duten ikastaroen artean.

Helduen eskaintza

Mantenimenduko gimnasia, egokitze fisikoa, banakako entrenamenduak, mantenimenduko igeriketa, aerobika, indoor txirrindularitza, pilates, igerian ikastea, stretching, aquaerobika edo igeriketa gidatua ditugu helduentzako kirol jarduerak.

Ikastaro hauek guztiak astean zehar egingo dira eta herritarren bermerako kirol bakoitzeko ordutegi aitzak egingo dira.

Haurren eskaintza

Gaztetxo eta haurrentzako jardueri dagokienez, kirol ludoteka, igerian ikastea eta alebinen kirol jardueren sustapena.

Hautetaz gain, 6-24 hilabete bitarteko haurtxoentzako igeriketa ikastaroan parte hartzeko aukera ere badago ikasurte honetan.



Alebinen kirol jardueren sustapenean kirol ezberdinak probatzeko aukera dute haurrek, atletismoa, esate baterako.

Haurren jarduerak asteleheneretik ostiralera burutuko dira, haurtxoen igeriketa eta alebinen kirol jardueren sustapena salbu, larunbatean egingo baitira.

Alebinen kirol sustapena gainera, 1998an eta 1999an jaiotako haurrei zuzendua dagoen jarduera da eta udal kirol gune desberdinetan egingo dena.

Izena emateko epea

Kirol jardueren izena emate epea gaur irekiko da azken urtean jarduera batean ibili ez direnentzat.

Kirol Udal zerbitzuak jakin arazi duenez, jarduera gehien talde kide kopurua mugatua izango da, beraz, plazak libre dauden bitartean izena emateko epea irekita egongo da.

Bestalde, taldeak osatu diren edo ez jakiteko azken eguna irailak 25a izango dela re aurreratu du.

Jardueri buruzko informazio gehiago eskuratu nahieran kirol zerbitzuak kiroldegian duen bulegora 10:00etatik 12:30etara edo 17:00etatik 19:00etara gerturatu edo 943 376 182 telefonora deitzea daukazu.

IKASTAROA

Manipulatuak karneta

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, ikastaro berri bat emango du, ostalaritzako sektoreari zuzendua, arrisku handiko janari-manipulatuak ateratzeko.

Ikastaroa iraila honen 29an eta 30ean emango da, Villa Mirentxuko ekitaldi-aretoan. Ordutegia 15:45etik 18:45era bitartekoa izango da. Informazio gehiago izateko edo izen emateko, deitu 943 533 303 telefonora.

GIZARTE ZERBITZUAK

Elkarteentzako dirulaguntzak

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak gizarte-ongizatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiak jakinarazten die zabalik dagoela Gizarte Zerbitzuen Departamentu honek eman ohi dituen dirulaguntzak eskuratzeko eskariak aurkezteko epea.

Horretarako, eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira goizetan, 9:00etatik 13:30etara, agiri hauekin batera, memoria, gastuen justifikazioa eta jardueren proposamena.

Eskariak aurkezteko epehilaren 30an bukatzen da.

Gimnastika erritmikoko neskek entrenamenduetan hasi dira

Uztai eta pilotak batetik bestera kiroldegiko areto nagusia tresnaz bete zen larunbatean LOKEko gimnastika erritmikoko nesken lehenengo entrenamenduan.

Maite Ruedaren neskek urtarrila aldera hasiko duten denboraldia gogor prestatzen hasi dira. Malgutasuna berreskuratu eta tresnen erabilera lantzeko ariketak, hori guztia, taldeak eta bakarkako gimnastik lehiaketarako prest egoteko.

Ez dira guztiak hasi, irailan zehar maila ezberdinetako taldeak osatu eta urriaren txikiak, 7 eta 8 urtekoak hasiko direla aipatu digu LOKEko entrenatzaileak.

Araudi berria

Aurten, gainera, araudi berria izango dutela aurreratu digu LOKEko entrenatzaileak.

"Olinpiada ostean, araudi aldatzen da eta urte gogorra izango dugu, aldaketa

ugari egongo baitira," adierazi du Maitek.

Entrenamendu egunak

Kirol honetan parte hartu nahi duten neskek irailan zehar izena eman ahal dute.

Horretarako entrenamendu egunetan, osteguna eta ostiralean 19:00etatik 20:00etara edo larunbatean 12:00etatik 13:30etara, kiroldegira gerturatu eta Maite Ruedarekin hitz egin behar duzue.



Malgutasun eta tresna erabilera ariketak egin zituzten lehenengo egunean.



Lehenengo astean, kalea irekitzeko azken ikutuak ematen ari ziren langileak.

Errotonda berria erabilgarria guztiz

Ostiralean trafikora zabalduta kale Nagusitik Beko kalea doan bide berria, hau da, errotonda berritik Osasun Zentro berrira doan bidea.

Kale itxiera

Aldi berean, Loidi-Barreneko

urbanizazio lanekin jarraitzen, kale Nagusitik Goikale aldera doan kalea itxiko dute gaur. Beraz, Urniatarako norabidea daraman ibilbidea errotonda berritik egin behar da, hau da, Beko kalerako sarbide berritik.

Udal Euskaltegiaren egoitza berria ostiralean inauguratuko da

Nerea EIZAGIRRE

Nahiz eta Udal euskaltegiak otsailean leku aldaketa egin, ostirala honetan inauguratuko da egoitza berria. Hori buruz eta euskaltegioko beste gai batzuei buruz jakiteko Jesus Mari Asurabarrena *Atxu*, Udal euskaltegioko zuzendariarekin solasaldia izan dugu.

“Dezente atzeratu zaigu inaugurazioa. Baina horrek ere badu bere arrazoia, egoitza berriaren inaugurazioa ikasturteko kanpaina nagusiko hasierarekin lotu nahi izan dugu. Hori indartzeko asmoarekin. Honela, matrikulazio kanpaina bete-betean gaude la egingo dugu inaugurazio hori,” adierazi digu *Atxuk*.

Toki egokia

Oso pozik ageri da egoitza aldaketaren ostean, nahiz eta leku aldaketa azkarra izan zen. “Otsailean hasi ginen hemen lanean, korrika eta presaka antzean, baina berehala egin ginen egoitza berria,” esan digu.

“Tokia bera ere egokia da. Oso leku zentrikoa da, jendearen bistan dagoena. Kirol-

degiaren eta osasun zentro berriaren inguruan dago kokatua. Herriko jende guztia pasatzen da lehentxeago edo beranduago hemendik. Begien bistan dagoen eraikin batean dago orain,” atxiki du.

Hizkuntza ohitura aldatu

Udal euskaltegioko eskaintzari begira, “aurrez aurreko moduluak ditu, urrats eta maila guztietakoak eta azterketak prestatzeko ikastaroak ere, astelehenetik ostegunera. horretaz gain, tutoretza eta hizkuntza ohitura aldatzeko programa ditugu,” aipatu digu euskaltegioko zuzendariak.

Deigarri egin zaigun hizkuntza ohitura aldatzeko programaren berri galdetu eta “ikasle bakoitzaren harreman sarean egiten dugun azterketa bat da, tutoretzarekin lotua dago. Kontua ez da hizkuntza ikastea soilik, hizkuntza jakintza aktiboa da. Darabilgun heinean da aktiboa. Ikasle batek bere harreman sareko beste pertsona batekin euskara erabiltzeko aukera baldin badu, bere ikas prozesua azkarragoa izango da. Eta, gainera, agian hizkuntza ohitura aldaketaren

eragile izan daiteke bere sarean,” azaldu du.

Teknologia berriak

Baina, hori guztiaz gain, teknologia berriei esker, etxean, euskaltegi bertan edo Kzgunean autoikaskuntza egin dezake, Interneteko lotura besterik ez da behar.

“Ordenagailuan egiten den lana da eta ikasleak ofimatikako gutxieneko ikaskuntza behar du. 156 orduko ikastaroa da eta lan horren erantzuna dagokion irakasleak emango dio. Horietatik, mintzazko 26 ordu egin behar ditu, astean ordu bete eta euskaltegioko ohiko maila batean egiten du lan hori,” azaldu digu.

Internetean erabilerara garrantzitsua bilakatu dela ere onartu du euskaltegioko zuzendariak, “HABEren dokumentazioan sartu eta bertan dokumentuak eta entzungaiak daude. Orain, entzungaiak ez dira lehen bezala egiten, irratikasetari jarri eta denak batera. Eta hor nabaritu dugu izugarriko aurrerapena, ikasleak bere kaxa entzumen arizketak egiten dituenean askoz



Atxu, eskuineko bigarrena, Buruntzaldeko matrikulazio kanpainaren aurkezpenean.

gehiago lantzen du bere ulermen maila.”

Eta “ohiko taldekoek euskaltegiara etortzerik ezin izan badute ere, ikasgaiak, landutako testuak edo entzungaiak Internet bidez eskuratu ditzakete eta honela etxean ere badute zer egin,” gaineratu du.

Matrikula gehiago

Irailaren 18ra arte, matrikula kanpaina daude Udal euskal-

tegiaren. “Irailaren 21ean hasten dugu ikasturtea. Baina horrek ez du esan nahi taldeak itxiak daudenik. Beraz, anima daitezela,” azaldu digu.

Honetaz gain, “ez dakigu krisiagatik den edo, baina beste urtetan baino jende gehiago dabil izena ematen. Ez da ahaztu behar matrikulazio altuenak hemen %24ko langabezia zegoenean eman zirela,” azpimarratu du. •



Teknologia berrien erabilerak euskararen ikasketan ondorio onak dituela aipatu digu Udal Euskaltegioko zuzendariak. Horregatik ordenagailu gela berriak garrantzia handia du, baita gelatan dauden tresnak ere.



ANAIK

JANTZI-DENDA






Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386

Goizane Mendizabal argazkilaria

‘Argazkiak oro har itsasaldera begira ateratzen ditut’

21 urte besterik ez ditu Goizane Mendizabal zarauzarrak eta urte batzuk badaramatza kamara bizkarrean hartu eta argazkiak eginaz. Hauek itsasertzean egiteko joera du eta *Itsasoari Begira* izenburu erakargarria jarri dio iraila osoan Jalgin ikusi daitekeen erakusketari. Zarautz inguruan ateratako hainbat argazki zintzilikatu ditu.

Jon ALTUNA

Diseinu Grafiko ikasketak bukatu berri ditu eta argazkilaritzan trebatuko da ondorengo bi urteetan Goizane Mendizabal Zarauzko argazkilaria gaztea. Orain arte bere kontura ikasi du, baina pixkanaka hasi da argazkiak erakutsi eta serio-ago hartzen. Izan ere, argazkilaritza du zaletasun lehen argazkiak gurasoen kamara txikiarekin ateratu zituenetik. Diseinua eta artea ere gustuko ditu.

Nondik datorkizu zaletasuna?
Betidanik gustatu izan zait, argazkilariek atentzioa deitzen zidaten, kamara bizkarrean hartu eta nola ibiltzen ziren.

Zein argazki kamara erabiltzen duzu?
Erreflex bat daukat, D80a.

Ze iritzi daukazu argazkilaritza digitalaz?
Batxilergoan probatu genuen analogikoa eta egia esan beste xarma bat dauka, zailagoa da nire iritzi, baina orain dena da digitala, eta nik ere dena digitalean egiten dut.

Erakusketa zer dela eta *Itsasoari Begira*?
Zarauzterra izanda eta itsasoa hain gertu edukita, askotan itsasaldera joaten gara. Argazkiak ateratzera barrualdera,


mendialdera, joan beharrean itsasora joateko ohitura daukagu. Agian, niri pertsonalki kostaldeak gehiago tiratzen didalako izango da.

Non egindako argazkiak dira?
Gehienbat Urola Kostako argazkiak dira.

Eta zergatik zuri beltzean?
Iruditzen zait batzuek behintzat deigarriagoak direla. Ez dakit nola azaldu. Malenkonia puntu bat eragiten dute batzuek, zahar itxura horregatik edo.

Itsasoa asko agertzen al da zure argazkietan.
Bai, ez beti baina normalean itsasoa dute oinarri; itsasaldera begira ateratakoak izaten dira, hau da, objekturen bat eta itsasoa atzean.

Zeri begira egoten zara bestela? Zer ateratzea duzu gustuko?
Batez ere, erretratuak: adin ezberdineko pertsonak eta bakoitzak zein espresio daukan.



Itsasoari Begira zuri beltzean egindako argazkiak zintzilikatu ditu Jalgin Goizane Mendizabal Zarauzko argazkilaria.

“ Argazkitan jendearen begirada jaso eta hirugarren munduko pobrezia erakutsi nahi nuke

Argazki kuttunik ba al duzu, argazki ikusgarriak, xarma berezia duenik?
Bai badut bat. Egin nuen lehenengoetarikoa da. Itsasoari begira aterata dago eta bolei-boleko sare bat ageri da. Koloretan da eta koloreek bizitasun handia ematen diote.

Hori duzu faboritua, oraingoz?
Bai. Baditut umei ateratako beste batzuk baina faboritua hori da momentuz.

Zein argazki egitea gustatuko litzaizuke? Etorkizunerako zein asmo dituzu?
Paisajeak aterata baino nahiago dut erretratuak egin. Eta erretratuak egitea gustatzen zaidanez, ondo legoke kanpora joan, bidaiatu, hirugarren munduko pobrezia argazkitan jaso eta jendearen espresio eta begirada horien bidez erakustea.

Argazkilaritzarekin jarraitzea gustatuko litzaidake eta hortik bizitzea baldin badago oraindik eta hobeto. Baina mundu honetan bizitzeko oso zaila dago. Baina gustatu, gustatuko litzaidake.

Zein argazkilaria gustatzen zaizu?
Alain Daussin da gehiena gustatzen zaidana.

Aspaldian argazkirik erakutsi al duzu beste nonbaiten?
Lehenengo erakusketa da Jalgikoa. Bestela lehiaketa batzutan aurkeztu naiz.

Eta zer moduz?

Pare batean parte hartu dut eta Aiakoan lehen saria jaso nuen.

Zer moduzko harrera izan dute zure argazkiek? Zer dio jendeak?
Ona momentuz. Esaten didatenarengatik behintzat, harre-ara positiboa izan dute.

Argitaratzen al duzu nonbait argazkirik?
Ez, neure argazkiak interneten www.flickr.com/fotogoi orrialdean zintzilikatzen ditut, baina bestela ez.

Internet dudarik gabe erakustoki egokia izan daiteke argazkilarientzat. Zer deritzozu?
Oso ona da argazkiak erakusteko. Jendeak kritikatu egiten du, bai onerako eta bai txarre-rako. Baina, beti ere, iritzia emanaz.
Bestalde, ikasteko ere oso ona da. Nik ikasi dudana gehiena interneti esker izan da, bai beste argazkilarien lanak ikusiz, bai hor dauden milaka baliabide erabiliz.

Argazkiei esanahiren edo mesuren bat erantzen saiatzen al zara?
Esanahiarena ez dakit,... nik agian esanahi bat eman nahi diot eta zuk ikustean beste bat ematen diozu. Argazkiak zerbait espresatzen badu behintzat, gustura gelditzen naiz. Ez, ikusi, “argazkia polita da” edo “itsusia da” esan eta kitto, zerbait sortarazi behar dute barruan. •



Duela sei bat urte hasi zen argazkilaritza serio xamar hartzen.

ERREKATXO JAETXEA

- Eguneko menua
- Ostinaletako menua 8 euro
- Asteburuko menua enkarguz

JAUNARTZE ETA BATAJOETAKO MENU BEREZIAK

Oria Etorbidea 4 • Tel.: 943 365557 • Lasarte-Oria

ELEKTRIZITATEA ARREGUI

- TB/Hi-Fi
- Instalazio elektrikoak
- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

Kale Nagusia 39
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

Helduek ere ikasteko aukera dute

■ Lasarte-Oriako Helduen hezkuntza zentroak aukera ugari ematen dizkie herritarrei

NEREA EIZAGIRRE

Hogei bat urte dira Lasarte-Oriako Helduen Hezkuntza zentroan lanean hasi zirenetik. Egun, Zumaburu kaleko 13. zenbakian, hau da, Zumaburuko ikastetxean dute egoitza nagusia. Hala ere, Alberto Alonso irakasleak azaldu digunez, "zentro nagusia Lasarte-Orian dagoen arren, Usurbilen ere ikasgai batzuk ematen ditugu."

Albertok azaldu digunaren arabera, iaz 250 ikasle baino gehiago izan zituzten Helduen Hezkuntza zentroak eskaintzen dituen 40 ikastarotetan.

Eta gainera, "ikasleen adin tartea oso zabala da, 18 urte-tik hasi eta badaukagu 82 urte dituen emakume bat. Nik informatikan badituz 70 urte baino gehiagoko pertsona batzuk. Ez dago mugarik," atxiki du.

Hezkuntza eskaintza

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza departamentuaren menpe dagoen zentroa denez Helduen Hezkuntza zentroak hezkuntza arautua eta arautu gabea eskaintzen du.

"Hau da, batetik ikasketa batzuk egiten dira, DBHko titulua lortzeko eta bestetik bestelako ikastaroak, Unibertsitateko sarrera froga prestatzen dute edo hizkuntzetan, euskara edo ingelesean hastapen ikastaroa ematen diegu, esate baterako," azaldu digu Albertok.

Era honetara, titulua lortu nahiez gero, ikasgai finkoak egin behar direla azpimarratu du irakasleak. "Baina badago beste era bat, non ikasleak bere gustura egiten dituen ikasketak, hau da, literatura interesatzen bazaie literatur tailerlean ematen dute izena. Bakoitzak nahi duenean," aipatu digu.

DBH eta Unibertsitatea

"DBHko titulua iaz 20 bat izan ziren. Baina badago jendea oraindik titulua lortzeko prestatzen ari dena, baita 25 urte gorako Unibertsitateko sarrera prestatzen ari direnak ere," adierazi du.

Eta zera gaineratu du, "Unibertsitate bakoitzak bere sarrera froga du eta sarrera gainditzeko, aurretik formazio-rik ez baduzu zail samarra da."

"Baina bakoitzaren ibilbidea ezberdina da. Batzuk ezer



Helduen Hezkuntza zentroan ikasteaz gain, zenbait modulutan irteerak egiten dituzte. Arg: L-O Helduen Hezkuntza

ikas ez dutela esaten dute eta ez da egia. Ez da eskolara joan baina asko daki. Asko irakurri du eta beti mugitu da beste arlotan, beste ikastarotan,... eta haien formazioa oso aberatsa da," azpimarratu du.

"Jendeak garbi dauka ere burua lantzen ez baldin bada, burua errazago galdu daitekeela. Erabiltzen ez dena ba azkenean galdu daitekeela," ere adierazi digu.

Informatika eta ingelesa

"Informatika arloko ikastaroak, ingelesa eta artearen inguruan dauden ikastaroak ere," horiek dira Albertoren aburuz arrakasta gehien dituzten ikastaroak. "Batzuk informatika ikastaro batetara datoz eta gero bertan, zentroan konturatzen dira ikastaro gehiago daudela eta, hurrengo urtean beste zerbaitetan izena ematen dute," azpimarratu du irakasleak.

Honetaz gain, "herritar asko datorkigu aiton-amonak direla eta laguntza behar dutela ilobekin gutxieneko harreman bat izateko euskara ikasi nahi dutela esanaz. Eta oso aberatsa iruditzen zaigu, haientzat probetxugarri da eta berehala ikusten diote etekina gainera," adierazi digu Albertok.

Kanpoko jarduerak

Zentrotik kanpo ere jarduerak dituztela azaldu digu Albertok, "Arte en la calle" modulu, artea ikasi eta inguruko hirietara joaten dira arkitektureta eta artelanak ikustera. Gasteiz edo Iruñera goaz eta, urtean behin ere, bidai handiagoa egiten dugu. Adibidez,

iaz Dublinen izan ginen eta aurrekoan Pragan."

"Beste modulu batean ere, Gure bazterrak titulua duena, inguruko bazterrak miatu, ikusi eta ezagutzera goaz. Batez ere, naturari begira egiten dugu, baina ekonomia edo historia gertakizunak ere kontuan izaten ditugu eta lantzen ditugu," aipatu du.

Lan eta lan elkarteak

Lasarte-Oriako Helduen Hezkuntza zentroak gainera ikasleentz eta ikasle ohien elkarteak du Lan eta Lan izenekoa.

"Haiek ere ikastaroak antolatzen dituzte, dantza ikastaroa, gimnasia, etab. eta antzerki taldea haiek sortua da. Gure babesa du noski. Eta hor dabilta lanean, emandiak egiten, etab.," azaldu digu Albertok.

Izena ematea

Helduen Hezkuntza zentroko ikastaro batean parte hartu nahi izanez gero, "hurbildu, informatu eta izena eman. Hilabete osoa dute interesatuek. Astelehenetik ostegunera 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara eta ostiraletan goizez." •



Matematikak, literatura, artea, informatika, ingelesa eta, noski, euskara ikasten dituzte. Arg: L-O Helduen Hezkuntza

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

GOIZANE MENDIZABALEN argazkiak ikusgai. Jalgi kafe-antzo-
kioan egun osoan zehar.



Asteartea, 15

Filma

EL SECRETO, atrakzioaren legea,
dokumentalaren emanaldia.
"Sanatana Dharma" Yoga
Eskolan, 19:00etan.

Asteazkena, 16

Hitzaldia

SEMA-ALABEK ZERGATIK ESATEN
DIGUTEN GEZURRA hitzaldia
eskainiko du Helena San
Pedrok, Nola hezi gure sema-
alabak hitzaldi zikloan. Kultu-
retxean, 18:00etan.

Jaungoikoa ezagutzeko dokumentala

DIOS EXISTE, Deepak Chopraren dokumentala eskainiko dute yoga eskolan. Posible al da jaungoikoarekin esperientzia zuzena izatea nahiz eta erlijioetan sinistu ez? Chopra doktorearen arabera, gure burmuina horretarako prestatuta dago; unibertso infinitu eta kaotiko bat badagoela onartzen dugulako eta bere esanahia jakin nahi dugulako.

GAUR, ASTELEHENA
19:00ETAN
SANATANA DHARMA YOGA ESKOLAN

Filma

Shadus, Yoguiak edo eska-
leak?, dokumentala ikusgai.
"Sanatana Dharma" Yoga
Eskolan, 19:00etan.

Ostirala, 18

Kontzertua

NEVERMIND hirukotea Nirvana
taldearen jazz bertsoiak egi-
ten. Jalgin, 23:00etan, EUSKARAZ.

Larunbata, 26

Jaialdia

LASARTE-ORIAKO VI. AKORDEOI
JAIALDIA Zero-Setteren eskutik.
jaialdiko protagonista Natha-
lie Boucheix izango da bere
taldearekin. Hauetaz gain
Zero Sette orkestra eta Xabier
Iglesias akordeoijolea egongo
dira. Manuel Lekuona kultu-
retxean, 19:30ean.



Eskutitzak

Shucran, eskerrak

Saharako neska mutilak
etxean daude jada.
Guren artean bi hilabete
bizi-bizi igaro eta gero
euren haimara itzuli dira.
Te bat hartuaz, senide eta
lagunei udako ibileren
berri ematen ariko dira
segur-aski. Egun gutxi
barru "madrassa" (eskola)
hasiko da eta eguneroko
bizitzara itzuliko dira....

Lasarte-Oria eta
Andoaingo 11 familiak
hartu dute parte "oporrak
bakean" egitasmoan.
Saharako neska-mutilak
hartu dituzte euren
etxeetan. Horretarako
ondorengoan laguntza
izan dute: Lasarte-Oria
eta Andoaingo Udala,
batez ere Kooperazio eta
Gizarte-Ongizate sailak,
Andoaingo Hurria-Sahara
elkartea, Fronte Polisa-
rioak Euskadin duen
Ordezkaritza, Lasarte-
Oria eta Andoaingo Osa-
sun Zentroetako
pediatria zerbitzuak,
Osakidetza, Txintxarri
eta Lasarte-Oriako DV,
eta oro har, hilabete
hauetan burutu diren
ihardueretan laguntza
eman duten guztiena.

**Lasarte-Oriako Saharar
Herriaren Lagunak**

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Oharrak

Galdutako arropa

Udako Txokoetan eta Kanpal-
dieten galdutako arropa jasot-
zeko aukera izango da
irailaren 18ra arte Ttakunen,
Geltoki kalea 4. zenbakian.

Oriatarren bazkaria

Oria auzoko bizilagun eta
lagunkideek bazkaria ospatu-
ko dute urriaren 18an Txitxar-
din Beltza jatetxean. Aurten
auzoko praktikante izandako
Jose Javier San Sebastian
omenduko dute. Bazkarirako
txartelak eskuratzeko deitu
zenbaki hauetara, 943
363332 (Marimi) edo 943
363905 (Marisol) urriaren 10a
baino lehen.

DYAk Sorosle Ikastaroa

Irailaren 16tik urriaren 6ra,
19:00etatik 21:00etara, aste-
lehenetik ostiralera, DYAk
sorosle ikastaroa izango da
Landaberri-Garaikoetxea ikas-
tolan (Atsokabar,3). Unibertsita-
terako 2 kreditu eskuratu
dira. Informazioa eta aurreins-
kripzioa: 943 464622.

Alboka Abesbatza

Alboka Abesbatzak jakin
arazten du, irailaren 10ean,
osteguna, emango diela
hasiera entseguiei. Era berean,
abesteko interesa duen orori
Zumaburuko Arantzazuko
Amaren eliza azpiko gelara,
astelehen edo ostegunetan
20:00etatik 21:00etara, hur-
biltzeko gonbita egiten die.

Amalur eskola martxan da

Amalur eskolan trikitixa, txis-
tua, panderoa eta bateria ira-
ksten dute. Tresnak ikasiz,
musika bizi eta doinu alaiak
gozatu! Arratsaldeko 17:30-
20:00. Izena emateko: 943
364138/616 447 729 edo
eskolatik pasa.

Zitekeko eskolak hasi dira

Ziteke eskolan matematika,
fisika, marrazkia, lengoaia,
iraksten dute besteak beste.
Eta aurten ere nerabe eta hel-
duentzako, informatikako saio
bereziak antolatzen dituzte IT
txartela lortzeko. Arratsaldeko
16:00-19:00. Izena emateko

deitu: 943363106 edo eskola-
tik pasa zaitzekete.

Kiroldegiko ordutegia

Irailtik aurrera herriko kirol
guneen ordutegia honako hau
izango da. Kiroldegia, astele-
henetik ostiralera, 7:00-
22:30era egongo da irekia,
larunbatetan 9:00-20:00etara
eta igandeetan, 9:00-
13:00etara; igerilekua, berriz,
asteazkenean 7:00-12:30era
eta 14:00-21:30era, larunba-
tetan 9:00-13:00etara eta
16:00-20:00etara, igandeetan
9:00-13:00etara eta Michelin-
go kirol gunea, astelehenetik
ostiralera, 15:00-22:00etara
irekiko da, larunbatetan 9:00-
20:00etara eta igandeetan
9:00-13:00etara.

Ostadarreko Futbol Eskola

Ostadar K.F.k jakin arazten
du, Futbol Eskolan izena
eman duten jokalariek elkar-
teko bulegora, Geltoki kalea
25. zenbakira, gerturatu
behar direla dokumentazioa-
ren bila.

Tenis eskolaren ikasturte hasiera

LOKEko Tennis eskolak irailaren
14an, astelehena, emango dio
hasiera 2009-2010 ikasturtea-
ri. Tennis eskola 7 eta 16 urte
bitarteko neska-mutilei zuzen-
du dago. Eskolarekin harre-
manetan jarri nahi izanez
gero, irailaren 14tik aurrera eta
arratsaldeko 18:30etatik aurre-
ra Mitxelingo kirol gunera hur-
bil zaitzekete.

Igeriketako ikasturte abian

Buruntzaldea I.K.T.k ireki
dugu jadanik 2009-2010 ikas-
turteko matrikulazioa. Izena
emateko jo udal kiroldegira
18:00-21:00ak bitarte edo
deitu Ruben Villalon entrena-
tzaileari (696 506673). Adina-
ren arabera entrenamendu
egunak eta ordutegian desber-
dinak izango dira: 96koak
egunero 19:00-21:15era;
97koak, astelehen, astearte,
ostegun eta ostiralean 19:30-
21:15era; 98-99an jaiok,
astelehen, asteazken eta osti-

raletan 18:00-19:30era;
2000koak astelehen, asteaz-
ken eta ostiralean 18:30-
19:30era; 2001ekoak astearte
eta ostegunetan 18:45-
19:30era eta 2002an jaiok
astearte eta ostegunetan
18:00-18:45ak arte. Animatu
eta etorri gurekin igeri egitera.

Eskolarteko infantil taldea

Ekainean futboleko eskolarteko
infantil taldean parte hartzeko
izena eman zuten hurrek irai-
lak 16 asteazkenean hasiko
dituzte entrenamenduak
Michelingo Kirol Gunean.
Entrenamenduetara kirola egi-
teko arropa eraman behar
dute.

Jokalarien zerrenda Ostadar
K.F. bulegoan dago, Geltoki
kalea 25. zenbakia. Informazio
edo galderarik egin beharrez
gero, elkarteko bulegotik pasa.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

txintxarri@ttakun.com

16 urtetik beherakoentzat aisia aukerak

■ Buruntzaldeko Udalek gida bana egin dute eta web-orrian daude kontsultatzeko

TXINTXARRI

Buruntzaldeko sei udalek 16 urtetik beherakoentzat eskualdean euskaraz egiten diren jarduerak eta zerbitzuen gida prestatu dute.

Gida horretan, edozein haur eta gazte eskualdeko edozein herritan 2009-2010 ikasturtean egin ditzakeen jarduerak biltzen dira: aisia, dantza, erlijioa, kirola, musika eta kantua, zerbitzuak...

Herrian herriko informazio osatua dago, izan ere, herri bakoitzak gida bana prestatu baitu.

Eta hauek guztiak, www.buruntzaldea.org web-orrian daude edozeinek kontsultatzeko moduan.

Azalpenak eta eskaintza

Honela, jarduerak bakoitzaren inguruan hainbat informazio biltzen da gidan, nori zuzendua dagoen, noiz gauzatzen den, non, harremanetarako

telefonoa edo argibide batzuk, esate baterako.

Lasarte-Oriako gidaren barruan, Udalak gazteentzat duen eskaintza gain, hala nola, udal liburutegia, gazte informazioa, gazte ikastaroak edo musika eskola, herriko elkarte, eskola eta enpresa ezberdinek euskaraz egiten dituzten jardueren eskaintza ere aurkitu daiteke. Esate baterako, Landaberri Antzerki eta Dantza eskola, Amalur Trikitixa eta Pandero Eskola edo Erketz D.T.

Web orrialdean

Bestalde, eskualdeko guraso eta gaztetxoek gida kontsultatzeko aukeraren berri izan dezaten, 16 urtetik beherako gazteen etxeetara diptiko bat helaraziko dute sei udalek.

Izan ere, orain arte paperezko bertsioan atara bada ere, hemendik aurrera web-orrian bakarrik egongo da eguneratuta aisiako gida. •



Euskaraz egin daitezkeen jarduerak ugari aurkezten dira Buruntzaldeko aisiako gidan eta kirola horietako bat da.

Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak
% 40 - % 75
2009-10

ona eta merke

Edozein lasarteoritarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatariarentzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Beke kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 20ra

Munteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behe
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 25ra

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org



LASARTE-ORIAKO UDALA